

## Etxarrin, 1999ko ekainaren 24an

J. Haritschelhar, euskaltzainburua,  
H. Knörr, buruordea,  
P. Goenaga, idazkaria,  
J. A. Arana, diruzaina,  
J. L. Davant,  
X. Diharce,  
A. Iñigo,  
X. Kintana,  
E. Larre,  
J. M. Lekuona,  
B. Oihartzabal,  
P. Ondarra,  
Tx. Peillen,  
J. San Martin,  
J. M. Satrustegi,  
eta A. Urrutia, euskaltzainak  
eta J. L. Lizundia, idazkariorde-kudea-  
tzailea,  
M. Gorrotxategi, Onomastika batzordeko  
idazkaria (1.2. gaian)

Etxarri Aranazko udaletxean elkartu da Euskaltzaindia 1999ko ekainaren 24an bere hileroko batzarra egiteko. Bileraren arratsaldeko lauetan hasi da. Parte hartu duten euskaltzainen izenak ezkerreko zutabearen biltzen dira. Ezin etorria adierazi dute P. Altunak, M. Azkaratek eta P. Charrittonek.

### *Aurreko batzar-agiria onartzea*

Inork ez du oharririk egin. Beraz, onartutzat eman da aurreko hileko agiria.

### *Euskaltzainburuaren hitzak*

Euskaltzainburuak zorionak eman dizkio lehenbizi Juan San Martini bere 77 urte bete berriengatik. “Zazpiak bat” egiten omen dute oraingoan ere.

Andres Iñigori ere zorionak eman dizkio “urteko bidasotarra” izendapena jaso duelako.

### *Hizkuntza arauak*

#### *Pikante-postu zerrendako pitxi hitzak*

Aurreko bileran agindutako informazioa ez da ekarri. Bileran ziren Euskara Batuko batzordekideek ere ez dute argitasunik eman ahal izan. Horrenbestez, hitz honetaz ez da ezer erabaki. Hurrengo bileran izan beharko.

#### *Postura-santu hitz zerrenda*

Aurreko batzarrean X. Kintanaren oharrak aztertuak gelditu zirenez, oraingoan H. Knörr jaunarenak hartu dira aztergai.

*Pot* sarreran, *pot egin* azpissarrerari ez ezik *pot eman*-i ere leku egitea eskatzen du Knörr jaunak. Onartu da proposamena.

*Potxolo* hitza erabilera adierazkorretarako gordetzea proposatzen du ohargileak. Onartu da: *Adkor*. marka erantsiko zaio.

*Poxi* sarrera aldatzea ez da onartu: *Ipar*. jartzeak ez du esan nahi Iparralde osoan gertatzen dela.

Ohargileak *pozkada* eta *poz* baliokidetzat dauzka. Baina gauzak ez dira horrela (cf. “Agur Jesusen Ama” kantua). Beraz, sarrera hori lehengoan utzi da.

*Pozu* sartzea ez da oraingoz onartu.

*Prefektu* sarrerari *Erromako prefektua* erantsiko zaio adibide moduan.

*Premu* sarrerari adibide bat eranstea proposatzen du Knörr jaunak. Ez da onartu: sarrera datorren bezala uztea erabaki da.

*Preso altxatu* azpisarrera gisa ematea onartu da.

Ohargileak *prest* sarreran adjektibo gisa erabil daitekeela erakusteko moduko adibideak gehitzea proposatzen du. Onartu da proposamena: *dantzara joateko borondate presta*; *prest dago zure borondatea egiteko* adibideak erantsiko zaizkio. Bestalde, *prestik* forma sartzea ere ongi ikusiko luke Knörr jaunak. Batzordearen ustez, *Ipar. Zah.* denez, ez dago argi merezi ote duen sartzea. Batzarrak, hala ere, sartzea onartu du, lehenaz gain *Zub.* marka ezarritz.

*Prestalan* hitza *plurale tantum* omen da, ohargilearen ustez. Ez da iritzi horretakoa Euskara Batuko batzordea. Aldaketarik gabe uztea onartu da, horrenbestez.

*Preziagarri* sartzea eskatzen du ohargileak, *prezagarri* forma hobetsiz, hala ere. Honako hau erabaki da: *preziagarri* sartu, baina \* *e. prezagarri* oharrarekin.

*Printza* sartzea onartu da, Knörren oharraren arabera. Hala ere, batzordearen ustez ‘izpia’ *Eguzki printzak*, adiera eta adibidea emanaz, sartu beharko litzateke. Hau dela eta, eztabaida piztu da. Dirudienez, “eguzkiaren printzak” diogunean metafora gisa darabilgu hitz hori. *Printzak* egurra, edo beste zerbait, zartatzean saltatzen duten zatitxoak dira, adibidez. Beraz, lehenbizi jatorrizko adiera ematea onartu da eta, bigarren mailan, metaforazkoa. *Printzatu* (da/du) aditzari ere leku egitea onartu da: ‘zartatu’ adiera ezarriko zaio.

*Proba* sarreran bigarren adiera bat (‘egia erakusteko bidea’) ezarri nahi luke ohargileak, beti ere *froga* hitza hobetsiz. Batzordearen iritzia, hain zuzen, kontrakoa da, zeren, dirudienez, gaur *froga* erabiltzen baita *proba*-ren ordeaz. Hortaz, dagoen bezala utziko da. Gauza bera egingo da *probatu* aditzarekin ere.

Zerrendan *aprobetxatu* ematen da *probetxatu*-ren kaltetan. Honen kontrakoa da Knörr jauna. Hala ere, batzordeak, datuen arabera, lehengoari eustea proposatzen du: datuak *aprobetxatu*-ren alde dabilta, dirudienez.

Knörrek *profetizatu*-ren ondoan *profetatu* ere nahi du, Lardizabalek eta Iraizotzek erabiltzen dutela eta. Baina *profetatu* ez da forma nagusia, nonbait. Gainera, *profetizatu* nazioartekoa da, batzordearen arabera. Beraz, ez da onartu oharra.

*Prolatibo* hurrengo itzulirako utzi da.

*Prometatu*-rentzat leku bat nahi du ohargileak. Onartu da, baina *Ipar. Zah.* ‘promestu, agindu’ gisa emango da.

*Proportzio* hitzaren bigarren adieran adibide batzuk eskatzen ditu ohargileak. Gauzak dauden bezala uztea onartu da.

*Protesi* sartzea onartu da, nazioartekoa baita.

*Psalmo* forma sartzea ez da onartu. Gure tradizioan *salmo* forma da nagusi.

*Pubertaro* hitza beharrezko ote den galdetzen da oharretan. Nazioartekoa dela erantzuten du batzordeak.

*Puda* sartzea onartu da, *Ipar*. dela esanaz eta 'aiotz(-)mota' adiera ezarriz.

*Pulamendu* hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

*Puntu* sarreran *puntuz puntu* esapidea sartzea proposatzen du H. Knörrek. Honen beharrik ez da ikusi. Horrelako esamoldeak (cf. *etxez etxe*) guztiz emankorrak dira.

*Pusaka* sartzea onartu da: **pusaka** *Ipar*. 'bultzaka'.

*Putar* hitza sartzeko proposamena ez da onartu.

*Ranking* hitza ez du Knörrek beharrezko ikusten. Hala ere, maileguen arauetan emana eta argitaratua dagoenez, sartu beharrekotzat ikusi da.

Zerrendan *errekor* hitzari ematen zaio bide *record* hitzaren kontra. Ohargileak ez du maite ez bata ez bestea. Hala ere, *errekor* hitza dagoeneko emana dago eta argitaratua. Beraz, zerrenda bere horretan uztea erabaki da.

*Rol* sarrera Knörr jaunak ez du beharrezko ikusten. Gaur nahikoa erabiltzen denez, dagoenetan uztea erabaki da.

*Sabelki* sarreran ageri den *okela* zuzenduko da.

*Sabotaje* hitzaz bere zalantzak ditu ohargileak. Nagusia, honako hau: euskarak hitz hori dagoeneko irentsia badu, zergatik ez eman *-aia* bukaerarekin? Erantzun zaio *-aje* dela araua eta *-aia* salbuespena. Beraz, arauzko forman ematen dela. Horrela onartu da.

*Sabuka* hitza hurrengo itzulirako uztea erabaki da. Orobat, *sain*. Hitz hau Larra mendik badakar ere, ez dago oso dokumentatua.

*Sailean* bere tokira eramango da.

*Sala*-rentzat bigarren adiera bat ('etxea') ematea eskatzen du Knörr jaunak. Ez da onartu. Dirudienez, aski da oraingoz 'aretoa' adierarekin.

*Salbatore* hitza maiuskulaz ezartzea onartu da.

*Salo* jasotzea eskatzen da oharretan. Hala ere, oraingo itzuli honetan behintzat zerrendatik kanpo uztea erabaki da.

*Saltakor* hitza sartzeko proposamena ez da onartu. Hau baino egokiago ikusten dira *saltokari*, *saltari*.

*Salto* hitza batzordeak dagoenetan uztea proposatzen badu ere, " = *jauzi* " oharriz horniturik agerraraztea onartu da.

Ordoren, A. Urrutia jaunaren oharrak aztertzeari ekin dio batzarrak.

*Postura* hitzarena egina da jadanik.

*Potka* hitza dagokion lekura eramango da.

*Potxingo* hurrengo itzulirako uztea erabaki da.

*Pozgabe* sartzea eskatzen du Urrutiak, *pozgabetasun* hitza ere ageri dela eta. Ez-tabaida sortu da. Era guztietako argudioak entzun dira. Zenbaiten ustez adjektibo hori ez da beharrezko. Gainera, *pozgabetasun* hitzaren analisi zuzena ere ez litzateke, nahi eta ez, [pozgabe+tasun]. [Poz+gabetasun] gisako analisia ere onartuko luke hitz horrek. Dena dela, bozkatu da eta honako emaitza hau gertatu da: *pozgabe* sartzearen alde, zazpi boto eta beste horrenbeste, ez sartzearen alde. Boto bat zuriz eman da. Emaitza hauek ikusita, gauzak dauden bezala uztea erabaki da: *pozgabe*-rik ez da sartuko, beraz, zerrendan.

*Prebentzio* hitza hurrengo itzulirako utzi da.

*Premisa* hitzari leku egitea onartu da.

Ohargileak *prenda* sarrera aldatzea eskatzen du. "h. **bahi**" oharra ezarriko zaio.

*Prest*-en sarreran, *prest izan* eta *prest egon* azpisarrerak erantsiko dira, *konforme* hitzaren hari beretik.

*Prestuez* hurrengo itzulirako utzi da, lekukotasunak urri baitira.

*Probintzial* hitza *Iz.* eta *Izond.* kategoria markekin ezarriko da.

*Produzitu* sarreran ageri den *ekoizti* zuzenduko da *ekoitzi* ezarritz.

*Profitatu* hitza ezabatu egingo da zerrendatik. Bide batez, *aprobetxatu* sarrera, argitaratu aurretik, zuzendu egingo da, *Heg.* 'baliatu' ezarritz.

*Propietate* sarrera dela eta, Urrutiak dio hitz hori erabilgarria gerta daitekeela zientzietan, adibidez, baina *jabetza*-ren ordain gisa ez litzatekeela ontzat eman behar. Hori argitzeko eskatzen du, zerrendan hitza bere soiltasunean ageri baita. Xehetasun hauek hurrengo itzulirako uztea erabaki da. *Propietate* hitza, hala ere, zerrendan gordeko da.

*Pub* hurrengo itzulirako utzi da. Orobat, *punk* ere.

*Pubertaro* eta *pubertasun* hitzen ondoan ohargileak *puber*-i ere leku egitea nahi luke. Baina hitz hau ez da ageri inon, antza. Beraz, izatekotan, hurrengo itzulian jasoko litzateke.

*Puntual* hurrengo itzulirako utzi da. Orduan aztertuko da zein testuingurutan erabil daitekeen eta abar.

*Arrazionalismo* eta *arrazionalista* ageri dira hitz hobetsi bezala oraingo zerrendan. Hala ere, A letran ez omen dira ageri. Batzordeak dio zerrenda osoa argitaratu aurretik eransteoak direla hitz horiek. Kontu bera, *errifle*, *errito*, *errugby* eta *erruleta* hitzekin. Hauek ere E letran sartuko dira argitaratu aurretik.

*Sagasti* eta *sagu* sarreretan dauden akats tipografikoak eta hurrenkerazkoak zuzenduko dira, ohargileak eskatu bezala.

*Saihets*-en azpian *saihets(-)hezur* ageri dela eta, Urrutiak marraren erabilera irizpide bakararen agindupean sartzea eskatzen du eta ez, *Hiztegi Batu* honetan ageri den bezala, *berna-hezur* baina *kaskezur*, adibidez. Irizpidea argia dela erantzun zai: lehen osagaien aldaketaren bat dagoen neurrian (*burezur*), elkarturik idatzi behar da. Bestela, bi hitzetan, oso egina ez badago behintzat (*bizkarrezur*). Gauzak daudenetan utzi dira, hortaz.

*Sailburuordetza* hitza zerrendan sartuko da.

*Saka egin*-en ondoan *saka* hitz soilak ere bere sarrera behar lukeela dio Urrutiak. Baina, izen bezala erabiltzen ez denez, aditz esapidea bakarrik eman behar da zerrendan. Ez da onartu Urrutiaren eskaria.

Zerrendan *samaldak* ageri da. Horren ordez, *samaldaka* behar du.

*Samurbera* hitza, adibiderik ezean, hurrengo itzulirako utzi da.

Eta honenbestez, eten egin da *postura-santu* zerrendari buruzko oharren azterketa. Eztabaidagai gisa markatuak datozenak hurrengo bileran aztertuko dira.

### Onomastika

*“Zuberoako herritarren izenak” txostena onartzea*

Davant jaunak dioenez, aurreko bileran banatutako zerrendari buruzko oharrik ez da jaso. Irizpideak argi daude: 1) aldatzeko arrazoirik ezean, gauzak bere horretan utzi; 2) tokikoek darabilten deitura hobetsi; 3) tokikoen ebakera berantkorra bada, ez da baliokotzat emango. Dena dela, zalantza batzuk izan dituztela adierazi du: *lextarrar*, *züharrar* eta *zunharrar*-ekin. Forma hauek dira, azkenean, onartu direnak. Hiru deitura horiek forma horretan eramango ditu, hortaz, onartu den zerrendak.

### Eskuartekoak

#### Literatura sariak

Aurtengo Literatura sarietarako (Txomin Agirre, T. Alzaga, F. Arrese Beitia eta Mikel Zarate sarietarako) deia egin du Euskaltzaindiak eta hauen berri eman zaie euskaltzainei.

Bide batez, joan den urtean sarituak gertatu ziren lanak ere argitaratu dira eta ale bana eman zaie euskaltzainei.

#### Literatur sari nazionalerako epaimahaikideak izendatzea

Zuzendaritzaren proposamenez, honako jaun-andre hauek izendatzea erabaki du Euskaltzaindiak: “Premio Nacional de las Letras Españolas” delakorako, H. Knörr; poesiakorako, J. San Martin; narratibarako, M<sup>a</sup> Jose Olaziregi; antzerkirako, Patri Urkizu; haur eta gazte literaturarako, Juan Kruz Igerabide; saiakerarako, Lourdes Otaegi eta itzulpengintzarako, J. R. Garcia.

#### P. Iraizotzen bigarren liburukia

Nafar gobernua Iraizotzen bigarren liburukia kaleratu du P. Ondarraren eskutik. Ale bana jaso dute euskaltzainek. A. Iñigok proposatzen du Perez de Viñaspre jaunari eskerrak ematea argitalpen honetarako emandako laguntzagatik.

*Euskaltzaindiaren hurrengo biltzarra*

Idazkariordeak azaldu du horretarako izendatu zen batzordeak dagoeneko finkatu dituela hurrengo biltzarreko gaiak. Honako hauek izango dira: a) Hizkuntzaren historia (ahaidetasun gorabeherak barne); b) Hiztegi gintza; c) Hizkuntza ereduak (estandarra eta aldaerak).

Proposamena onartu da. Horrenbestez, hauek izango dira hurrengo biltzarreko gaiak eta honen inguruan hasiko da lanean batzordea.

Datari dagokionez, oraindik finkatzeko dago. 2001. urtean izan liteke eta ez datorren urtean, hasieran uste izan zen bezala. Dena dela, hau hurrengoan erabakiko da.

Euskaltzainburuak  
Jean Haritschelhar

Idazkariak  
Patxi Goenaga

\* \* \*